

# Iñigo Urrutia

PANDEMIAREN KUDEAKETA  
LEGEDIAREN ISPILUAN



## KONSTITUZIO AUZITEGIA ETA SALBUESPEN EGOERA

Espanian ezarritako lehen alarma egoera Konstituzioaren aurkakotzat jo du Konstituzio Auzitegiak. "Baina eman duten argudioa ez da logikoa", dio Iñigo Urrutiak; "esan dute alarma egoeran eskubideak ez zirela mugatu, ezabatu baizik. Eta hori egiteko salbuespen egoera aldarrikatu behar zela. Paradoxa da, salbuespen egoerak sekulako eskubide murrizketa dakar eta. Prentsa askatasuna, adibidez, bertan behera geratzen da. Badirudi Konstituzio Auzitegiak bidea erakutsi nahi duela, ideologia kontserbadoretik: 'Eskubideak mugatu nahi badituzu, denak mugatu behar dituzu'. Hori, giza eskubideen ikuspegitik, oso kezagarria da".

## "Gizarteak egiteke du eskubideen mugaketari buruzko eztabaida"

EAEko LABI ospetsuaren azken saioaren bezperan hartu gaitu, EHUn dituen bulegoetako batean. Legelaria eta Administrazio Zuzenbideko irakaslea da Iñigo Urrutia Libarona (Jatabe, Bizkaia, 1966). Gaur egun unibertsitateko Aldezlea ere bada, hots, bertako kideen babeslea. Gauza askotaz berba egin genezakeen harekin, baina ia gai bakarra izan dugu mintzagai: COVID-19 pandemiaren alderdi juridikoa, EAeri dagokionez batik bat.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

**EHUn egin berri den jardunaldi batean parte hartu zenuen: "COVID-19a eta botere publikoak Euskadin. Espainiako jurisprudentziari begirada". Lehenbiziko hitzaldia "Alarma-egoera, osasuna. Nork agintzen du?" izan zen. Horixe ba, galdera: nork agintzen du?**

Lehen joera, Espainiako Estatuan, alarma egoera aldarrikatzea izan zen, hau da, benetan salbuespeneko den egoera. Horrek zentralizazioa ekarri zuen. Espainiako Konstituzioak oso gutxi hitz egiten du alarma, salbuespen eta setio egoerez. Eta, badago egoera horiek arautzen dituen lege organiko bat. 1981eko da, Francoren garaitik oso gertukoa, eta halakoxea du usaina: erabat zentralizatzailea da. Eskumena kentzen die autonomia erkidegoei eta aginte bakarra ezartzen du. Hori da alarma egoeraren oinarrian dagoen ideia, eta ez luke hala izan behar. Alemanian, Erresuma Batuan... beste era batera kudeatzen dira horrelako ezohiko egoerak: lankidetzan, esku-

menak urratu gabe... Hemen, berriz, estatu zentralak agindua eman, eta beste administrazioek betearazi. Bide hori hartu zen, eta hutsegitea izan zen.

### Zergatik?

Hau ez delako ordena publikoko krisia, osasun krisia baizik. Eta eskudunak autonomia erkidegoak dira. Legislazio nahikoa dago botere publikoei ahalmena emateko, haiek eskubideen mugapenak agin ditzaten, alarma egoerara jo gabe. Ildo horretan, harritu nau Urkulluren gobernu alarm egoera luzatzeko eskatzen ibili izanak. Uste dut badagoela, osasun-arloko legislazioan oinarrituta, tabernak ixteko agindua ematerik, etxeratze agindua ematerik...

### Hitz egin dezagun eskubideen mugapen horiez. Zer iritzi duzu bateko eta besteko gobernuen hartutako erabakiez?

Alde teknikoak garrantzi handia du, eta epidemiologoek esan behar dute zein neurri izan daitezkeen egokiak.



"EAEko agintariak ordena publikoko krisia balitz bezala ari zaizkio aurre egiten arazoari, eta ez osasun krisi modura".

Horrez gain, badago beste kontu bat: gizarte moduan zer arrisku nahi dugu hartu? Gobernuek gizartearen parte hartzerik gabe erabaki dute hori, eta uste dut gizarteak baduela zeresanik. Adibidez, Zero COVID sistema erabiliko dugu, Australian bezala (pertsonek bat kutsatzen bada auzo osoa itxia)? Hori da eredu bat. Beste bat, askoz liberalagoa, Norvegiakoa da, konfinamendu ez hain zorrotzak, eta abar. Kontua da onartu nahi dugun arriskuaz eztabaida publikoa egin behar dela, eta parlamentuak, EAEko legebiltzarrak, ez du funtzionatu ildo horretan. Bestalde, ez da logikoa Jaurlaritzak neurriak proposatzea, epaileek atzera botatzea, eta Jaurlaritzak horretaz kexatu baina errekursorik ez jaretzea. Epaileak erantzule bihurtu nahian, nolabait.

**Neurri murriztaileak inprobisatuak izan dira, edo aipatu dituzun legeetan ondo zehaztuta dago zer nolako murrizketak ezar daitezkeen?**

Kasu batzuk aurreikusita zeuden, baina gutxi erabilita. Pandemiaren hasieran,

iazko otsailean, mediku batek deitu zidan ospitaletik: "Iñigo, COVIDa diagnostikatu zaion pertsona bat daukagu hemen, eta alta boluntarioa eskatu du. Ez dakigu zer egin". Halakoetan, legislatzioak aurreikusten du epailearengana jo behar duzula, hark agin diezaion pertsona horri bertan gelditzeko. Horrelako egoerak aurreikusita daude eta irakasleok eskoletan irakatsi izan ditugu, baina muturreko adibide gisa.

**Eztabaida dago txertorik hartzen ez dutenei zenbait eskubide murrizteaz.**

Gai labaina da eta uste dut gakoetako bat dela. Txertaketa gaur-gaurkoz ez da nahitaezkoa, baina ondorio juridikoak badaude, txertatu ezean. Adibidez, egoitzak erabiltzailearen tutoretza duen kasu batzuetan nahitaezko txertaketa planteatu da, zuzendaritzak aginduta. Epaiak eman dira egoiliar horietako batzuen senideak aurka egon direlako, eta epaileek esan dute nahitaezko txertaketa horiek zuzenak direla. Baina gero fiskaltzak esan du nahitaezko txertaketarik ez dela egin behar. Nik uste dut

txertaketari dagokionez inposizio apur bat dagoela.

**Eskubideen mugaketa batzuk normalizatzeko arriskua dago?**

Eskubideen mugaketaren gainean ez da eztabaida sozialik planteatu. Zer arrisku maila onartu eta zein ez. Eta neurriek zer eragin izan dezaketen etorkizunean. Uste dut gizarteak egiteke duen eztabaida dela. Ni kritikoa naiz egin den kudeaketarekin, eta ematen du politikariak oso lasai bizi izan direla alarma egoera aldarrikatzeaz geroztik. Zaila da neurri egokia zein den jakitea, baina iruditzen zait oso merke erabili ditugula alarma egoera, eskubideen mugaketa, zentralizazioa, agintea...

**Gaitzaren larritasunak justifikatzen zuena baino neurri handiagoan?**

Bai. Horretan dabilta orain, ordena publikoko krisia balitz bezala aurre egiten arazoari, eta ez osasun krisi modura. Polizia eta kontrol soziala. Batzuetan ematen du botere publikoek, agintariak, agintea nork duen erakutsi nahi dutela. Agian, uste dutelako epaileak botere zati bat kentzen ari zaizkiela. ●